



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza osoan ikaskuntzari
buruzko dokumentuak

Pertsonen parte hartzea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan Gipuzkoan eta bere egoera EB-28arekiko

56. dokumentua

2018ko otsaila



AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Pertsonen ikaskuntza bizitza osoan zehar.....	4
2.1. Gipuzkoan ikaskuntzako jardueretan parte-hartzea, azken 12 hilabeteetan.....	4
2.2. Gipuzkoan ikaskuntzako jardueretan parte hartzea, azken 4 asteetan	6
3. EB-28arekin posizio konparatua.....	8
3.1. Anlisi konparatzailea beste esparru geografikoekin.....	8

1. Sarrera

Gipuzkoa, jakintzan oinarritutako gizarte bat izateko bokazioa duen Lurralde bat bezala, garatzeko forma bezala ikaskuntzarengatik apustu egin behar du. Hau da, baldintza onuragarriak ezarri behar ditu pertsonak euren bizitza osoan zehar konfiantza eta motibazioa eduki dezaten ikaskuntza jarduerak arrakastarekin hasi eta amaitzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurralde Sozialki Arduratsua eraiki nahi horretan, urteak daramatza pertsonen ikaskuntza sustatzen gizarte gipuzkoarraren garapenaren ardatz bezala, eta oparotasun ekonomikoa, ongizatea eta gauzatze pertsonala lortzeko ezinbesteko bitartekari bezala.

Jarduera honetan, Gipuzkoak ikaskuntza aukerak gipuzkoar guztientzako modu berdinean eskuragarriak izan daitezten lan egiten du eta, aldi berean, munduari irekia dagoen Lurralde bat izanda, Europar Batasuneko (EB-28) herrialdeek bizitzen dituzten aurrerapausoak ez ditu bistatik galdu nahi.

Honako dokumentu hau Gipuzkoako biztanleriari egindako inkestetatik eta Eurostateko datuetatik abiatuta egin da. Analisia, 25 eta 64 urte bitarteko biztanlerian oinarritua, honako alderdietan ardaizten da:

- Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jardueraren bat egitea, genero araberako banaketa eta azken aldiko bilakaera kontuan hartuz.
- EB-28arekiko eta zenbait Estatu kideekiko posizio konparatua (genero banaketa eta azken aldiko bilakaera kontuan hartuz).


2. Pertsonen ikaskuntza bizitza osoan zehar

2.1. Gipuzkoan ikaskuntzako jardueretan parte-hartzea, azken 12 hilabeteetan

2017an, azken urtean zehar ia Gipuzkoako biztanleriaren erdiak parte hartu du ikaskuntza jardueretan

25 eta 64 urte bitarteko bi gipuzkoarretatik ia batek (% 46a) parte hartu du azken 12 hilabeteetan bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jardueraren batean. Generoaren arabera, emakumeen parte hartzea (% 44a) gizonezkoena baino bost puntu baxuagoa da (% 49a).

1go grafikoa 2017an bizitza osoko ikaskuntza jardueretan parte-hartzea (azken 12 hilabeteetan)




Iturria:Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua. 2017

Azken urteetan, ikaskuntza jardueretan parte hartzea jaitsi egin da bai gizonezkoen artean eta baita emakumeen artean ere

Generoaren ikuspegitik 2015 eta 2017 artean eman den bilakaeraren arabera, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jardueretan parte hartzea zertxobait gora egin du Gipuzkoako gizonezkoen artean. Emakumeen kasuan, aldiz, ia ez da aldaketarik sumatu.

2. grafikoa Gipuzkoan bizitza osoko ikaskuntza jardueretan parte-hartzearen bilakaera (azken 12 hilabeteetan)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua. 2017


2.2. Gipuzkoan ikaskuntzako jardueretan parte hartzea, azken 4 asteetan

Gizonezkoen etengabeko parte hartzea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jardueretan emakumeena baino altuagoa da

Arreta etengabeko parte hartzean jarri ezkeru (inkestak egin aurreko azken 4 asteak), bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jardueretan parte hartzea % 20,9raino jaisten da.

Oraindik zehatzago, eta generoaren ikuspuntutik, antzematen da ikaskuntza jardueretan parte hartzea zertxobait altuagoa dela gizonezkoen artean (% 21,4a) emakumeen parte hartzearekin alderatuz (% 20,3a).

3. grafikoa 2017an, parte-hartze jarraitua bizitza osoan zeharreko ikaskuntza jardueretan (azken 4 asteetan)



Iturria:Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua. 2017


Bai emakumeen zein gizonezkoen parte hartzea hazi egin da azken urteetan

2015 eta 2017 urte bitartean, ikaskuntzako jardueretan etengabeko parte hartzean bilakaera positiboa antzematen da, bai Gipuzkoako emakumeen zein gizonezkoetan artean.

Zehazki, gizonezkoen % 21,4ak parte hartu du azken lau asteetan ikaskuntzako jardueretan, 2015ean parte hartzen zuela adierazten zuen % 11,4arekin alderatuz. Emakumeen kasuan, etengabeko ikaskuntzan parte hartzea 2015ean % 16,5a izatetik, 2017an % 20,3a izatera pasa da.

4. grafikoa Bizitza osoko ikaskuntza jardueretan parte-hartze jarraituaren bilakaera Gipuzkoan (azken 4 asteetan)

25 eta 64 urte arteko biztanleriaren portzentaia (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua. 2017

3. EB-28arekin posizio konparatua

3.1. Analisi konparatzailea beste esparru geografikoekin


Herialde gehienetan emakumeen parte hartzea ikaskuntzan altuagoa da

EB-28a bere osotasunean hartuta, emakumeen etengabeko parte hartze ikaskuntzako jardueretan %12ra igotzen da, gizonezkoen %10arekin alderatuz. Zentzu honetan, aukeratutako herrialde guztietan, Alemanian izan ezik, emakumeen parte hartze tasa handiagoa da gizonezkoenarekin alderatuz.

Suedia da bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jardueretan emakumezkoen parte hartze tasarik altuena duena (%37a, EB-28aren %12arekin eta Espainiaren %10arekin alderatuz). Baita ere, emakumeen alde genero arrakalarik handiena duen herrialdea da: ikaskuntzan parte hartzea 13,8 puntu altuagoa da emakumeen artean.

1. grafikoa 2017an, ikaskuntza jardueretan parte-hartzea (azken 4 asteetan), esparru geografikoen arabera

25 eta 64 urte arteko biztanleriaren portzentaia (%)



Iturria: Eurostat


EB-28ko herrialdeetan ez dira aldaketa nabarmenak antzematen ikaskuntzan erregistratzen den parte hartzean azken urtean

Hurrengo grafikoa ikusi daitekeen bezala, azken urtean zehar aztertutako herrialdeetan ez dira aldaketa nabarmenak antzeman bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jardueretan etengabeko parte hartze tasan.

Zehazki, Alemanian eta Espainian ikaskuntzako jardueretan parte hartzea EB-28aren batez bestekoaren azpitik mantentzen da, Danimarkan edo Suedian parte hartze tasa hori hirukoiztu egiten den bitartean.

2. grafikoa Ikaskuntza jardueretan parte-hartzearen bilakaera (azken 4 asteetan), esparru geografikoen arabera

25 eta 64 urte arteko biztanleriaren portzentaia (%)



Iturria: Eurostat



Titulua:	Pertsonen parte hartzea bitzita osoan zeharreko ikaskuntzan Gipuzkoan eta bere egoera EB-28arekiko 56. dokumentua, 2018ko otsaila
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua. 2017
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa- lana: Gipuzkoa	Gipuzkoan bitzita osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko inkesta. Datakey, S.A, 2017.
EB-28 eta herrialde erreferentziakoak	Eurostat